

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

320/2021 Foru Agindua, azaroaren 18koa. Arabako Lurralde Historikoan eskola-kirola ikuskatzeko araudia

Eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubidea honako hauek osatzen dute: 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena; 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, Eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa; lurralde historikoetako foru erakundeek aurrekoa garatuz emandako araudia, eta erakunde antolatzaileek onesten dituzten diziplina xedapenak.

Aurretik aipatutako lehenengo legeak, hau da, Euskadiko kirolaren Legeak, bere 120. artikuluan xedatzen du lizentziak edo baimenak emateko eskumena duen administrazioak ikuskatuko dituela instalazioak eta jarduerak.

Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak eskumenak ditu eskola kirolaren arloan eta, halatan, 23. artikulua honela xedatzen du: "Lurralde historikoetan kirolaren eskumena duten foru organoek, bakoitzak bere eskumen esparruaren barruan, eskola kirolaren gaineko ikuskatze funtzioak egingo dituzte. Horretarako, eskola kirolaren alorreko lege eta arau xedapenak betearaziko dituzte."

Hala, autonomia erkidegoko araudiak ikuskaritzaren alorrean esleitzen dizkion eskumenez baliatuz, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolari buruzko urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauak, eskola kirolaren arloan indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak galarazi edo zuzentzen saiatzeko helburuaz, eta betiere kirolean balioak sustatzeko asmoz, horren barruan indarrean dauden arauak eta akordioak betetzea dagoelarik, bere V. tituluaren gaitu egiten du Arabako Foru Aldundia ikuskatze alorreko eskumen horiek garatzeko. Zehazkiago, gaitu egiten du Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailaren burua hura garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Beste alde batetik, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako), 25.3 artikuluan, EAeko administrazio publikoen eginbeharren artean, hau aipatzen du: "neurri egokiak hartu... kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonen tratua eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko". Ildo horretan, aipatutako 21/2020 Foru Arauaren 18. artikuluan xedatzen da eskola kiroleko ikuskaritzaren eginkizunetako bat dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren kontuan indarrean dagoen araudia, kirolari aplikatua, betetzen den zaindu eta kontrolatzea.

Azaldutako aginduak ikusirik, eta dauden ikuskatze premiak kontuan hartuz, eskola kirolaren eremuan ikuskatzeak egiteko behar diren bideak gaitu dira, Arabako Lurralde Historikoan eskola kirolaren ikuskatzailetzak bete behar dituen antolaketa eta prozedura arautuz.

Foru aginduaren egituraz denaz bezainbatean, haren I. tituluaren Arabako eskola kiroleko ikuskaritzari aplikatzekoak zaizkion xedapen orokorrak jasotzen dira, horien artean eskola kirolaren ikuskatze ekintza oinarritzen den printzipioen arauaketa nabarmentzen delarik. Xedapen orokorrak ezarri eta gero, II. eta III. tituluaren ikuskatze ekintzaren eginkizunak eta helburuak jasotzen dira, arreta berezia jarriz ikuskatzearen gai diren jardueretan, baita ikuskatze eginkizuna gauzatzearen inguruko xedapenak ere, azken titulu horretan harkiko lotura daukaten pertsona guztien eskubideak eta eginbeharrak jasotzen direlarik.

Foru agindu honen IV. tituluaren ikuskatze prozedurari buruzkoa da, ikustaldiaren garapena eta ikuskatze txostena bezalako alderdi garrantzitsuak jasotzen dituela, eta V. tituluaren ikuskatze ekintzaren beharrezko plangintzaz dihardu.

Azkenean, gaitzeari, eranskinak onesteari eta indarrean jartzeari buruzko ohiko xedapenekin bukatzen da foru agindu hau.

Agindu hau izapidetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) jasotako arauketa onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako zuzentarauak.

Hala, azaldutako aurrekarietan, behar adina arrazoitu da Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko ikuskatze prozedura arautu beharra dagoela eta, gainera, ekintza arauemaile proportzionatua da, lortu nahi den helburua erdiesteko ezinbesteko gutxienekora mugatzen baita.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko aginduzko izapideetatik pasatu da eta, nolana ere, onetsi bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik, Arabako Foru Administrazioako Kontsulta Batzordeari entzun, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru Agindu honen xedea Arabako lurralde historikoan eskola kirolaren ikuskaritzak bete beharreko antolamendua eta prozedura arautzea da.

2. artikulua. Eskola kiroleko ikuskatze ekintza oinarritzen den printzipioak

1. Eskola kiroleko ikuskaritzaren zerbitzura dagoen pertsonalak legezketasun, inpartzialtasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraituz beteko ditu bere eginkizunak. Halaber, bere jardunak garatzean, isiltasun profesionaleko eginbeharra gordeko du, harekin loturiko dokumentu guztien konfidentzialtasuna eta isilpeketasuna begiratu.

2. Salaketa baten ondorioz hasitako ikuskatzeen kalterik gabe, ikuskatzaileen jardunak plangintza printzipioari lotuta egongo dira eta eskola kirolaren arloko ikuskatze ekintzaren urteroko plan bati jarraituko diote, zeinak ekitaldi bakoitzerako aurrez jotako ohiko jardunak jasoko baititu.

3. Ondoko hauek dira eskola kiroleko ikuskaritza oinarritzen den printzipioak:

a. Eskola kiroleko jardueraren garapena eta harekin lotura daukaten programak hezkuntza eta antolakuntza ikuspuntutik gainbegiratu eta kontrolatzea, betiere etengabeko hobekuntzan lagunduz.

b. Eskola kirolaren gaian indarrean dauden lege xedapenak bete daitezen zaintzea, derri-gorrezko eskolatze aldian eskola ikasleek eskolaz kanpoko orduetan kirol jarduera antolatua egiten duten ikastetxe eta leku guztietan.

c. Kirolaren balio eta printzipio gidariak betetzen direla zaintzea. Balio eta printzipio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko araudian jasota daude, bai eta horri buruz aplikatu beharreko gainerako araudian ere.

d. Lurralde orekaren printzipioa bete dadin bermatzea, eskola ikasle guztiei aukera emanaz eskola kiroleko programan berdintasun baldintzetan parte hartzeko, lurraldearen barruko haien joan-etorriak egitea ahalbideratzen dien garraio sare baten antolakuntza dela medio.

3. artikulua. Aplikazio eremua

Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen Sailak, bere eskumenen esparruan, ikuskatze eginkizunak beteko ditu eskola kirolaren arloan, eta kontrolatuko du legezko eta erregelamenduzko xedapenak betetzen direla, eskola kirolaren esparruan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztien eskubideak bermatzen direla eta betebeharrak betetzen direla.

II. TITULUA

IKUSKATZE EKINTZAREN EGINKIZUNAK ETA HELBURUAK

4. artikulua. Eginkizunak

Honako hauek dira Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren ikuskaritzaren eginkizunak:

a) Eskola kirolaren alorrean legezko eta arauzko xedapenak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea eta kirolari aplikatutako emakumeen eta gizonen arteko alorrean indarrean dagoen araubidea betetzen dela zaintzea eta kontrolatzea.

b) Eskola kirolaren printzipioak eta hezkuntza-balioak betetzen eta aplikatzen diren gainbegiratzea.

c) Eskola kirolean parte hartzen duten sektoreei aholkularitza, orientazioa eta informazioa ematea beren eskubideez baliatzeaz eta beren eginbeharrak betetzeaz.

d) Erabiltzaileek ustezko arau-hausteei eta irregularitasunei buruz egindako erreklamazioak eta salaketak egiaztatzea aurreko a) izkian adierazitako arloari dagokionez, albo batera utzi gabe beste administrazio publikoek izan ditzaketen eskumenak.

e) Arabako Foru Aldundiak eskola kirola sustatzeko emandako diru-laguntzak eta laguntzak jasotzeko datuak, hau da, zenbateko ekonomikoa jasotzeko kalkulatzeko erabili zirenak, egiaztatzea eta errealitatearekin bat datozela baieztatzea. Hori guztia beste organoek gauzatu ditzaketen kontrolak albo batera utzi gabe.

f) Eskola kirolaren ikuskaritzaren berezko errealitatea ezagutzetik sortzen diren txostenak ematea, foru agindu honetan ezartzen diren bideetatik.

g) Beste xedapen batzuetan ezartzen den edo eskola kirolaren eremuan eskumena duten agintariek haren gain jartzen duten beste edozein.

5. artikulua. Ikuskatze jarduera

1. Ikuskaritzaren helburua egitateak egiaztatzea da, horretarako beharrezko informazioa eta datuak bilduz eta balio judizioak eta/edo presuntzioak ekidinez.

2. Ebazpen honen 6. artikuluan adierazten den espezializazio teknikoa daukaten eta ikuskaritzarako izendatu diren pertsonak egingo dute ikuskatze jarduera.

3. Orokorrean, Arabako Lurralde Historikoan ikuskatze jarduera eskumena dagoen eskola kirolaren elementu eta alderdi guztiak hartuko ditu barnean, ondoko hauek ziurtatzeko helburuaz: lege eta erregelamenduzko xedapenak betetzea eta eskola kirolaren eremuan parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztien eskubideak bermatzea eta beraien eginbeharrak betetzea.

4. Ikuskatze jarduerak arreta berezia jarriko du ondoko kontu hauetan:

A) Eskola kiroleko programaren barruan dauden jarduerari dagokienez, ondoko ibilbide eta joan-etorri hauek egiaztatuko dira:

- Kirol partaidetzako ibilbidea:
 - Hastapen jarduerak.
 - Aldatutako lehiaketak: Arabako eskolarteko kirol jokoak.
 - Jolas jarduerak.
 - Kultura eta kirol jarduerak.
 - Errendimenduaren hastapenetako ibilbidea:
 - Detekzio jarduerak.
 - Teknikazio jarduerak.
 - Errendimenduaren hastapenetako lehiaketak.
 - Kontratutako autobusekin bidaiak eginez gero, egiaztatuko da ea baimendutako ibilgai-luek eta pertsona eskatzaileek bakarrik egiten dituzten honako hauek:
 - Astegunetan entrenatzeko baimendutako ibilbideak.
 - Asteburuetako lehiaketetarako baimendutako ibilbideak.
- B) Eskola kiroleko programaren barruan ez dauden jarduerari dagokienez, ondoko kontu hauek egiaztatuko dira:
- Eskola kiroleko programan jaso gabeko eta Kirol Zerbitzuak baimendutako kirol ekitaldiak antolatzeari dagokionez, baimendutakoaren arabera antolatzen diren egiaztatuko da. Baimenik ez duten ekitaldiei dagokionez, ukatze ebazpena betetzen den egiaztatuko da.
 - Eskola kiroleko programatik kanpoko eta Kirol Zerbitzuak baimendutako kirol ekitaldietan parte hartzeari dagokionez, baimendutakoaren arabera egiten den egiaztatuko da. Ukatutako eskariei dagokionez, ukatze ebazpena betetzen den egiaztatuko da.
 - Eskola kiroleko programaren barruan ez dauden ekitaldiak antolatzeari eta haietan parte hartzeari dagokionez, haietarako baimenik ez bada eskatu, beste pertsona batzuen bitartez haiek egiten diren berri jakinez gero, haien antolaketa edo haietako partaidetza egiaztatuko da.

III. TITULUA

IKUSKATZE EGINKIZUNA BETETZEA

6. artikulua. Ikuskatzaileak

1. Arabako Foru Aldundiaren eremuan ikuskaritza lanak egiten dituzten ikuskatzaileak beren jardunak agintea erabiltzea berekin dakarren neurrian, funtzionarioak izan beharko dira eta jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako gradua edo balio bereko titulua eduki beharko dute, prestakuntza horrek gaitu egiten baititu ikuskatutako kirol jarduerak balioesteko, eskola kirolari buruzko araudian jasotakoaren arabera. Halaber, kirol arloko eskumena duen sailari atxikita egongo dira.

2. Ikuskatzaileek ziurtagiriak izan beharko dituzte eta hala, agintaritza agenteak izango dira. Horrenbestez, agintaritza agenteek indarrean dagoen araubidearekin bat eginez dituzten babela eta eskumenak izango dituzte. Zereginak gauzatzeko beharrezko egiaztagiria eta beren izendapenari buruzko Foru Agindua erakutsi beharko dituzte.

3. Beharrezkoak diren legezko baldintzekin bat eginez aktetan jasotzen diren eta ikuskatzaileek egiaztatu dituzten egitateek ziurtasun presuntzioa izango dute, albo batera utzi gabe interesatuek eskubideak edo interesak defendatzeko aurkeztu ahal izango dituzten frogak.

4. Egokitzen jotzen dutenean eta zereginak hobeto egikaritzeko ikuskatzaileek beste administrazioetako eta erakunde publikoetako langileen eta zerbitzuen lankidetzak eskatu ahal izango dute. Horrez gain, alorrean eskumenak dituzten beste erakundeen informazioa eta aholkularitza eskatu ahal izango dute baita ere. Beharrezkotzat jotzen dutenean, segurtasun indar eta kidegoen lankidetzak ere eskatu ahal izango dute.

5. Beren eginkizunak betetzeko, beharrezko titulazioa eta kualifikazioa edukitzeaz gainera, kirolaren gaian eskumena duen sailak emandako berariazko prestakuntza hartu beharko dute ikuskatzaileek.

7. artikulua. Ikuskatzaileen eskumenak

Zereginak gauzatzean ikuskatzaileek eskumen hauek izango dituzte:

a) Sartu ahal izatea ikuskaritza gauzatu beharreko eskola kirola egiten ari diren zentro eta leku guztietan eta leku horietan egotea, betiere egoitzaren bortxaezintasuna errespetatuz.

b) Ikuskaritzaren presentzia jakinaraztea. Jakinarazpen hori egiaztatze ikustaldiaren hasieran egin daiteke, edo hasiera hori baino geroago, hala komeni baldin bada. Ikuskaritza bisita hasieran edo hala badagokio hasi ondoren ikuskatzaileak bertan daudela jakinaraztea. Hala behar denean, ikuskatzaileak une horretan zentroaren arduradun nagusia bertan egoteko eskaria egin ahal izango du.

c) Bisitan zehar arduraduna edo ordezkaria beraiekin batera egotea.

d) Aplikatu beharreko xedapenak betetzen direla egiaztatze beharrezkoak diren ikerketa diligenziak, azterketak edo probak egitea.

e) Ikuskaritzarako garrantzitsuak diren informazioa, datuak edo aurrekariak biltzea eta jasotzea. Informazio hori idatzizko eskakizun bidez jasoko da. Eskariak betetzeko ikuskatzaileek gutxienez hamar eguneko epea emango dute, eta zehaztu egingo dituzte eskatutako datuak, aurrekariak eta informazioa.

8. artikulua. Ikuskatzaileen betebeharrak

Zereginak gauzatzean ikuskatzaileek honakoak egin beharko dituzte:

a) Interes orokorrak objektibotasunez betetzea eta eraginkortasun eta hierarkia printzipioekin bat eginez jardutea, legea eta zuzenbidea guztiz betez, eta eskumenak dituzten agintaritzek zehaztutako irizpide teknikoak eta zuzentarauak errespetatzea.

b) Herritarrekin modurik egokienean jokatzeko eta pertsonen jardueren garapena ahalik eta gutxiena nahasten saiatzea, horrek haien agintari edo eginbeharren betetzeari kalterik egin gabe.

c) Ikuskaritzetan ezagutzen dituzten gaiak sekretuan mantenduko dituzte.

d) Funtzio publikoaren araudian ezarritako bateraezintasunen, abstentzioen eta ezespenen araubide orokorra betetzea.

9. artikulua. Ikuskatutako erakundearen betebeharrak

Ikuskatutako erakundeek eskubide hauek edukiko dituzte:

a) Ikuskatzaileen jarduna oinarritzeko balio duten datuak eta frogak eskuratzeko beharrezkoak diren ekintzak bakarrik egin daitezkeen, eta kirol jarduerak normaltasunez garatzea ahalik eta gutxiena nahasteko moduan.

b) Aholkularitza, orientazioa eta informazioa beren eskubideez baliatzeaz eta beren eginbeharrak betetzeaz.

c) Ikuskatze txostena idatzi ondoko entzunaldiko izapidea, jarduna eskola kiroleko araudiaren arabera dela edo ez dela oinarritzeko beharrezkoak diren datu eta frogak guztiak eskuratu direla uste denean.

d) Aktaren ale bat jasotzea, zeina haren sinaduraz jakinarazitzat emango baita.

10. artikulua. Adingabeek ikuskaritzan dituzten eskubideak

1. Ikuskatze jardunean, adingabekoen lankidetzaz ez da eskatu behar behar-beharrezkoa denean baizik, esku-hartze txikiaren printzipioari jarraituz, eta betiere adingabekoaren adinaren, heldutasun mailaren eta gainerako inguruabarren arabera jokatu.

2. Inoiz ere ez dira deklaratzera behartuko, eta ez da beharrezkoa izango adingabeek akta izenpetzea. Adingabeei aitortzea hartu edo haiengandik informazioa eskuratuz gero, prozeduran jaso beharko da gurasoek edo legezko tutoreek baimena eman dutela horretarako, eta betiere laguntza pertsona batekin batera egingo da.

Adingabekoengandik deklarazioa edo informazioa hartzekotan, hori eten beharko da pertsona horiek asaldura seinalerik ematen badute.

11. artikulua. Ikuskatutako erakundeen betebeharrak

1. Ikuskatutako erakundeek ikuskatzaileek beren lana zuzentasunez egiteko beharrezko laguntza emango dute.

2. Kirol zentro eta erakundeetako titularrek eta eskola kirolean lan egiten duten pertsonak eta erakundeek ikuskatzaileei instalakuntzetara sartzen utzi beharko diete eta agiriak eta ondasunak kontrolatzen eta aztertzen utzi beharko diete.

3. Ikuskatzaileek ikuskatuak bertan egotea eskatu ahal izango dute, edo ikuskatuak bertan ez baldin badaude administrazioan ordezkariak gauzatzen dutenak. Hori guztia ikuskaritza diligentziak egiaztatzeke izango da.

IV. TITULUA**IKUSKATZE PROZEDURA****12. artikulua. Prozeduraren hasiera**

1. Ikuskaritzaren helburua gertakariak egiaztatzea da, eta horretarako beharrezko informazioa eta datuak biltzen dira. Horrenbestez, ez da balio judiziorik eta/edo presuntziorik egingo.

2. Ikuskaritzak ofizios jardungo du jasotako agindu baten ondorioz, hau da, beste organo batzuk egindako arrazoitutako eskariaren ondorioz, norbere ekimenez edo salaketa bat egon delako. Jarduna norbere ekimenez egitekotan, ikuskatzearen prozedura hasteko arrazoi izan daitezkeen jokabide edo egitateen berri izanik, zuzenean edo zeharka, eta, gainera, gai honetan dagoen urteko plangintzaren ondorioz ere egin ahal izango da jarduna.

3. Ikuskaritzak ikuskatu beharreko zentroetan edo lekuetan egingo dira eta ez dute hala-beharrez aurretiazko jakinarazpenik eman beharko. Ikuskaritza bisitak ikuskatzaile batek edo zenbaiten gauzatu ahal izango dituzte eta ikuskaritza lanak egiteko beharrezko denbora guztia hartuko dute.

4. Era berean, ikuskaritzak administrazio publikoetan dauden datuak edo aurrekariak egiaztatu ahal izango ditu. Horretarako, beste administrazio publikoek emandako datuak edo aurrekariak baloratu ahal izango dituzte.

5. Egiaztaketa jarduketek ez dute sei hilabete baino gehiago iraungo, salbuetsiz atzerapena ikuskatuari egotzi ahal izatea edo administrazio lankidetzaz falta izan delako sortu izana. Inguruabar horiek administrazio espedientean jaso beharko dira.

6. Ikuskaritza batean egindako egiaztaketak aurrekariak izango dira hurrengo ikuskaritzetarako.

13. artikulua. Salaketaren ondorioz hasitako prozeduraren berezitasunak

1. Salaketetan, ikuskatze prozedura ofizios hastea bidezkotu lezaketen egintzak direnez, adierazi beharko dira haiek aurkezten dituzten pertsonen nortasuna, arau-hauste izan litezkeen egitateak eta haiek egin diren data, bai eta ustezko errudunen identifikazioa ere, posible izanez gero.

2. Salatzaileak ezin izango du eskatu interesdun izaeraz jokatu ahal izatea ikerketa faseen ondorioetarako.

3. Ez da izapidetuko salaketa anonimorik, ezta ere eskola kiroleko ikuskaritzak zaindu behar ez dituen alorrei buruzko salaketarik, arrazoitu gabekorik eta organo jurisdikzionaletan jorratzen diren gaiekin bat egiten duenik.

14. artikulua. Aurretiazko informazioa jasotzea

Ikuskaritza egin aurretik ikuskatu beharreko jarduerari buruzko datuak eta informazioa jasoko dira, besteak beste hauek:

- a) Izen-emateak: erakundeen, klubuen, taldeen eta parte-hartzaileen datuak.
- b) Entrenamenduetako eta lehiaketetako egunak eta orduak.
- c) Entrenamendurako edo lehiatzeko lekuak.
- d) Beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.

15. artikulua. Ikuskapena gauzatzea

1. Ikuskapenak ohikoak izango dira horien helburua urteko planifikazioko zereginak egikaritzea denean, eta ez ohikoak izango dira aipatutako urteko planetik kanpo gauzatzen direnean.

2. Ikuskaritza arrazoiarekin bat eginez, eta urteko programazioaren barne edo alboan egonik, hirugarren batek eskatuta hasitako urteko planifikaziotik kanpokoa izatea edo ofiziozkoa izatea, ikuskaritzan honako alorrak jorratuko dira:

a) Egiatzatuko dute eskola kiroleko programaren barruan dauden jarduerak araututako eskola kiroleko egutegietan ezarritako egunetan egiten direla.

Horrez gainera, kontratatutako autobusekin bidaiak eginez gero, egiaztatuko da baimendutako ibilgailuek eta pertsona eskatzaileek bakarrik egiten dituztela astegunetan entrenatzeko baimendutako ibilbideak eta asteburuetako lehiaketetarako baimendutako ibilbideak.

b) Indarrean dagoen eskola kiroleko programan jasota ez dauden jarduerari dagokienez beharrezko baimena dutela egiaztatzea.

c) Jarduera eta jardueran parte hartzen dutenen adina eta parte-hartzaileak identifikatuko dituzte: taldeak, arduradunak edo pertsona edo erakunde antolatzaileak eta identifikaziorako kirol arropa.

d) Astero baimendutako edo adierazitako baino entrenamendu gehiago edo gutxiago egitea egiaztatuko dute.

e) Indarrean dagoen eskola kiroleko programan izena emandako ikasleen zerrendak ikuskatutako jardueran parte hartzen ari direnekin bat egiten duela egiaztatuko dute.

3. Zentroan edo ikuskaritza lekuan daudela, ikuskatzen ari diren jardueraren arduraduna identifikatuko da eta jakinaraziko zaio ikuskaritza egiten uzteko betebeharra duela, eta esango zaio ikuskaritza egiteari uko eginez gero edo ikuskaritza oztopatuz gero zehapenak ezarriko zaizkiola, zehapen horien nolakotasuna ere adieraziz.

4. Ikuskaritzan jasotako informazioa eta datuak ikuskaritza aktan jasoko dira, eta akta hori ikuskatzaileak eta arduradunak sinatuko dute. Arduradunek ez badute akta sinatu nahi, ikuskatzaileek hala jasoko dute diligenza egokiaren bidez, bertan arrazoiak azalduz, haiek adierazi badituzte.

5. Ikuskaritza hasi ondoren horrekin jarraitzea edo bukatzea ezinezkoa denean ikuskatuak eskatutako aurrekariak edo agiriak eman ez dituelako, jarduketak jarraitu egingo du agiri horiek emateko eskariarekin bat eginez.

6. Ikuskaritza bat baino gehiago egin behar izanez gero, ikuskaritza bakoitzeko akta bat egingo da.

16. artikulua. Ikuskatze akta

1. Gaitutako ikuskatzaileek egiaztatutako egitateak aktetan formalizatuko dira 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen, 77.5. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta kontrakorik frogatu ezean ziurtasun printzipioa izango dute.

2. Aktetan gutxienez hauek jasoko dira:

a) Ikuskatze ikustaldia egiten duten pertsonen identifikazio datuak.

b) Ikuskatutako instalakuntzaren eta jardueraren identifikazio datuak.

c) Ikustaldiaren eguna eta ordua.

d) Ikuskatutako jarduera antolatu duen erakundearen eta/edo kirol klubaren datuak.

e) Ikuskatutako jardueraren zuzendarien edo gainbegiratzaileen datuak, entrenatzaileak, monitoreak edo langileak diren adieraziz.

f) Kirol instalakuntzako titularraren edo titularren datuak eta ikuskatutako jardueraren ordezkariarenak, bertan egonez gero.

g) Ikuskatutako jarduera lehiakorra baldin bada, antolatzaileak ez diren kirol erakunde eta/edo klub parte-hartzaileen datuak eta gainerako taldeen eta taldekideen datuak.

h) Ikuskatzearen helburua.

i) Egiaztatutako gertakariak.

j) Ikustaldia egiten duten ikuskatzaileen sinadura eta data, eta hartan egon den jardueraren arduradunarena, edo ez sinatzeko duen arrazoia.

3. Aktak ikustaldian egondako jardueraren arduradunak sinatu beharko ditu. Aurretik adierazitakoek akta sinatzen eta jasotzen badute horren jakinarazpena egingo da, baina ez da hala-beharrez aktaren edukia onartuko.

4. Egindako aktaren kopia emango zaio ikuskatuari, eta aktaren jakinarazpen ondorioak indarrean jarriko dira.

17. artikulua. Ikuskatze txostena

1. Ikustaldia edo ikustaldiak egin ondoren ikuskatzaileak ikuskaritza txostena egingo du, eta bertan hauek jasoko ditu:

a) Aurretiaz bildutako informazioa.

b) Ikuskaritza aktan edo aktetan egiaztatutako gertakariak.

c) Jarduerari buruzko informazioa ematen duten gainerako frogak.

d) Ikuskapen prozedura amaitzeko proposamena, izan daiteke:

- Eskola kirolaren araubidearekin bat egiten duena.

- Titularrak, bere ordezkariak edo langileek ikuskatzaileen lana oztopatu izana jasotzen duena.

- Jakinarazpenekoa, eskakizunak bete ez direnean edo erraz zuzentzeko irizpideei buruzkoa denean, eta betiere horietatik hirugarrenentzat kalte edo galerarik sortzen ez denean. Jakinarazpen txostenean aplikatu beharreko araubidea eta betetze epea jasoko dira.

- Zehapenekoa.

2. Txostenetan ezin daiteke jaso zigor proposamenik eta, haiek egin eta gero, haien berri emango zaio ikuskatutako jardueraren ardura duen pertsonari, egokitzen dauzkaten alegazioak egin ditzaten eta dokumentu eta froga-agiriak aurkez ditzaten, hamar eguneko epean.

3. Eskakizunen ez betetze arinak edo erraz konpontzeko akatsak egonez gero, Kirol Zerbitzuak ikustaldi berri bat egitea aginduko du, eta ikustaldi berri hori okerrak zuzentzeko epea igaro ondoren gauzatuko da. Bigarren ikuskapen horren emaitza kasuan kasuko ikuskatze aktan eta txostenean jasoko dira, eta ikuskapen prozedura amaitzeko proposamenean jasoko da ea haren emaitza eskola kirolaren araubidearekin edo zehapen araubidearekin bat datorren ala ez.

4. Zigortzeko moduko arau-haustea den egitaterik detektatuz gero, txostenean, gainera, arau-haustea tipifikatzeko eta zehapena mailakatzeko garrantzitsuak diren egitateak adierazi beharko dira eta, zehapen prozeduraren instrukzioetik ateratzen denaren kalterik gabe, ustez egindako arau-haustea, urratutako agindua eta, kasua izanez gero, ezar daitezkeen zehapenak azaldu beharko dira.

V.TITULUA

IKUSKATZE JARDUNAREN PLANGINTZA

18. artikulua. Eskola kiroleko ikuskatze jardunen urteko plangintza

1. Ikuskapen jarduerak bi helbururekin planifikatuko dira: batetik, administratutako pertsonen segurtasun printzipioa bermatzeko, ikuskapen jarduerak norentzat diren erabakitze irizpideak egon daitezen, eta, bestetik, ikuskapenaren barne antolaketa egokia izan dadin.

2. Artikulu honetako aurreko apartatuko aurreikuspenak betez, eskola kirolaren ikuskaritzaren eginkizunak urtero antolatuko dira, ikuskapen programa bat onartuta.

3. Urteko planifikazioan zehaztuko dira lortu beharreko helburuak, ikuskaritzaren xede materiala, edukia eta iraupenaren ikuskaritza.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Gaitzea.

Kirol arloan eskumena daukan zuzendaritzako titularrari ahalmena ematen zaio arau hau garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Ikuskatze aktaren eredia.

Onesten da foru agindu honen I. eranskinean jasotzen den ikuskatze aktaren eredia.

Hirugarrena. Eskola kiroleko 2021-2022 kanpainako ikuskatze plana.

Onesten dira eskola kiroleko 2021-2022 kanpainan egin beharreko ikuskatze ekintzak, foru agindu honen II. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz. 2021eko azaroaren 18a

Kultura eta Kirol saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ



ANEXO I

ESKOLA KIROLAREN ARLOKO IKUSKATZE AKTA
ACTA DE INSPECCION EN MATERIA DE DEPORTE ESCOLAR

Tokia <input type="radio"/> Lugar			
Data <input type="radio"/> Fecha		Ordua <input type="radio"/> Hora	

Ikuskatzailea <input type="radio"/> Inspector/a			
Ikuskatutako instalazioa eta jarduera Instalación y actividad inspeccionada			
(1) Entitate edo persona antolatzailea Entidad o persona organizadora			
(2) Kirol instalazioen jabea edo kudeatzailea Titular o gestor de las instalaciones deportivas			

(1) (2)	Jardueran parte hartzen duten entitate eta taldeak, eta haien partaideak Entidades y equipos participantes en la actividad, y sus componentes

(2)	Ikuskatzearen xedea Objeto de la inspección	
-----	---	--

(3)	Egiaztatutako egintzak eta jasotako informazioa <input type="radio"/> Hechos constatados e informaciones obtenidas

(Tokia eta data Lugar y fecha)
Izpta.: Ikuskatzailea
 Fdo.: Inspector/a

Izpta: Interesaduna
 Fdo: Interesado/a




ESKOLA KIROLAREN ARLOKO IKUSKATZE AKTA

Iksukatze akta betetzeko jarraibideak

1.- Atal honetan, ikuskatutako jardueraren kirol entitate edo talde antolatzailea identifikatuko da. Halaber, jarduera zuzentzen edo gainbegiratzen duen persona edo pertsonak identifikatuko dira nortasun agiriaren bidez; galdegingo zaie zer lotura duten jarduerarekin, antolatzaile edo klub-entitate antolatzailearen kideak diren, zer kargu edo lanpostu duten, entitate-klubaren entrenatzaile, monitorea do langileak diren. Jokabide bera izango da kirol instalazioaren titularrekin, delegatu, monitorea do langilearekin, bertan badago. Lo gauza bera egingo da parte hartzen duten gainerako entitate edo klubekin eta beraien kideekin.

2.- Jakinaraziko zaie entitate eta euren izenean jarduten duten pertsonen, zer betebeharrak dituzten ikuskaritzarekiko (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, 123. artikulua): utzi egin beharko diete ikuskatzaileei lokalean sartzen, dokumentuak eta ondasunak kontrolatzen eta aztertzen; halaber, behar den laguntza emango diete ikuskatze-lanetan. Eta ez betetzean ondorioz ohartarazi: arau-hauste larria egitea (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, 128.c artikulua) eta dagokion zigorra: diru-isuna, jarduerak debekatzeko, administrazio-aimena ezeztatzea, kirol-instalazioak ixtea, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea, kirol-instalazioetara sartzea galaraztea, kirol-jarduerak antolatzeke gaitasuna kentzea (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, 131. artikulua).

3.- Ikuskatzearen arrazoia: ohiko ikuskapena, salaketa baten egiaztapena.

4. Egiaztatutako egintzak eta jasotako informazioak: egintzak eta datuak zehastuko dira eta bere egiaztapenerako erabilitako bitartekoa: argazkiak, bideoak, lekukotzak, aitortzak.

5. Lehen atalean definitzen diren pertsonen artean ikuskaritzarekin harremana izandakoak sinatuko du. Akta sinatzeak eta jasotzeak horren jakinarapenaren balio du, baina ez du ekarriko bere onarpena. Sinatzen ez badu, ikuskatzaileak horren egiaztapena eta adierazitako arrazoiak izapidean jasoko ditu.

ACTA DE INSPECCIÓN EN MATERIA DE DEPORTE ESCOLAR

Instrucciones para cumplimentar el acta de inspección

1.- En este apartado se identificará la entidad y/o club deportivo organizador de la actividad inspeccionada. También se identificará a la persona o personas, mediante su documento de identificación, que se encuentren dirigiendo y supervisando la actividad. Se le preguntará por su relación con la actividad: si es el organizador o miembro del club o entidad organizadora, cargo o puesto que ostenten en el mismo; o si es entrenador, monitor o empleado. La misma actuación se realizará con el titular de la instalación deportiva, su delegado, encargado o empleado, si está presente. Lo mismo se hará con las demás entidades, equipos participantes y sus componentes.

2.- Se informará a la entidad y personas que actúen en su nombre, de su obligación ante la inspección deportiva (art. 123 Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco): estarán obligados a permitir a los inspectores el acceso a sus dependencias y el control y examen de documentos y bienes; así como a prestar la colaboración necesaria en la inspección. Y se les advertirá de las consecuencias de su incumplimiento: comisión de infracción grave (art. 128.c - Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco) y sanción de multa económica, suspensión de actividad, revocación de autorización administrativa, clausura de instalaciones deportivas, pérdida del derecho a obtener subvenciones o ayudas, prohibición de acceso a instalaciones deportivas o inhabilitación para organizar actividades deportivas (art. 131 Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco).

3.- Motivo de la inspección: inspección ordinaria, comprobación de una denuncia.

4.- Hechos constatados e informaciones obtenidas: Se detallarán los hechos y datos obtenidos, así como los medios utilizados para su constancia: fotografías, videos, testimonios, declaraciones

5.- Firmará la persona definida en el apartado 1 con quien se haya tenido comunicaciones durante la inspección. La firma y recepción del acta supone la notificación de esta, pero no implica la aceptación de su contenido. Si no la firma, se diligenciará por parte del inspector haciéndolo constar; así como los motivos, en su caso.



II ERANSKINA

IKUSKATZE PLANA

Lehenengo ikasturte honetan, Kirol Zuzendaritzak ikuskapen zerbitzuari ekingo dio, eskola kirolean parte hartzen duten erakundeei ikuskapen araudi berria ezagutarazteko eta eskola kirolaren arloan indarrean dauden lege xedapenak betetzen diren ikuskatzeko eta kontrolatzeko helburuarekin, batez ere egiten diren jardueri eta baimendutako joan-etorriei dagokienez.

Xede materiala	Edukia	Helburua
Baimena, eskola kiroleko programan sartzen ez diren jarduerak antolatzeko	Partaideei dagokienez, eskaeran jasotako datuak egiaztatzea	Egiaztatzea baimena eskatzen den jarduerak eskatutakoari erantzuten diola
Baimena, eskola kiroleko programan sartzen ez diren jardueretan parte hartzeko	Partaideei dagokienez, eskaeran jasotako datuak egiaztatzea	Egiaztatzea parte hartzea eskatzen den jarduerak eskatutakoari erantzuten diola
Egiaztatzea eskola kiroleko programan baimendutako joan-etorriak	Egiaztatzea eskola kirolaren kontratuan baimendutako ibilbideak	Egiaztatzea baimendutako ibilgailuak eta ibilbideak eskatutakoaren arabera egiten direla
Egiaztatzea erakundeek eskola kiroleko programaren edozein ibilbidetan egiten dituzten jarduerak	Egiaztatzea erakundeek aurkeztutako datuak, euren jardueri dagokienez	Egiaztatzea jarduerak eta partaideak bat datozela inskripzioan aurkeztutako datuekin